23

# EUSKADIKO ORKESTRA

24



# RACHMANINOFF STRAUSS

**18**
**Ekaina** / Junio
**19:30**

**Pamplona** / **Iruña**
BALUARTE

euskadikoorkestra.eus

Eusko Jaurlaritzako herri-baltzua
Sociedad pública del Gobierno Vasco

# EUSKADIKO ORKESTRA

**Zuzendari Titularra** / Director Titular:
**Robert Treviño**

**KONTZERTINOA**
CONCERTINO
Olatz Ruiz de Gordejuela

**I BIOLINAK** / VIOLINES I
Beatrice Gagiu (1) (5)
Xabier de Felipe (4)
José Ignacio Aizpiri
Inmaculada Aramburo
Laura Balboa
Irene Echeveste
Marie Gaillard
Alexandre Kozouline
Oscar López
Maite Menéndez
Larraitz Oiartzabal
Ortzi Oihartzabal
Itziar Prieto
Maialen Rezabal
Cristina Vértiz

**II BIOLINAK** / VIOLINES II
Raquel Cortinas (2)
Xabier Gil (2)
Mikel Ibañez (4)
Marie Héloïse Arbus (5)
Amaia Asurmendi
Nathalie Dabadie
Virgile Demillac
Ludwik Hamela
Anne-Marie Harmat
Antoni Kosc
Ricardo Ruiz
Igor Torre

**BIOLAK** / VIOLAS
Delphine Dupuy (2)
Pawel Krymer (2)
Monika Mazur (4)
Maite Abasolo
Esther Alba
Pascal Arnaud
Natacha Dupuy-Scordamaglia
Justyna Janiak-Krymer
Arkaitz Martínez
Sergio Montero
Yann Seyrac

**BIOLONTXELOAK**
VIOLONCHELOS
Juan Ignacio Emme (2)
Gabriel Mesado (2)
Flore Lefevre (4)
Natalia Díaz
Jon Larraz
Beatriz Linares
Pascale Michaud
Ian Swedlund

**KONTRABAXUAK**
CONTRABAJOS
Arkadiusz Maciejski (2)
Paloma Torrado (2)
Marc Sirera (4)
Victor Bogdanov
Mehmet Sönmez
Pierre Torrent

**FLAUTAK** / FLAUTAS
Hélène Billard-Alirol (2)
Bruno Claverie (2)
Ander Erburu
Oihana Kontxeso

**OBOEAK** / OBOES
Óscar Diago (2)
Javier Lecumberri (2)
Pascal Laffont
Hervé Michaud

**KLARINETEAK**
CLARINETES
Luis Cámara (2)
Juan Navarro (2)
Stéphane Langlois
Sara Zufiaurre

**FAGOTAK** / FAGOTES
Marco Caratto (2)
François Proud (2)
Yuan Dai
Anne Charlotte Lacroix

**TRONPAK** / **TROMPAS**
Marcos Cruz Pardeiro (2)
Adrián García Carballo (2)
Cristian Palau (2)
Ignacio Sánchez (3) (5)
Jean-Luc Casteret
Xabier Sarasa
Salvador Tudela

**TRONPETAK** / TROMPETAS
Didier Bousquet (2)
Bernabé García (2)
Jesús Castillo
Miguel Echepare

**TRONBOIAK** / TROMBONES
Arnaud Mandoche (2)
Christophe Sánchez (2)
Sergio Manteiga
Daniel Ruibal

**TUBA**
Oscar Abella (2)

**TINBALAK ETA PERKUSIOA**
TIMBALES Y PERCUSIÓN
Igor Arostegi (2)
Anthony Lafargue (2)
Héctor Marqués (2)
Irene Rodríguez (3) (5)
Xabier Peña

**HARPA** / ARPA
Iván Bragado (2)

(1) **Kontzertinoaren laguntzailea** / Ayuda de concertino
(2) **Bakarlaria** / Solista
(3) **Bakarlari-laguntzailea** / Ayuda de solista
(4) **Lehen tuttia** / Primer tutti
(5) **Aldi baterako kontratazioa** / Contratación temporal



**GIANCARLO GUERRERO**
**Zuzendaria** ˚ Director



**FEDERICO COLLI**
**Pianoa** ˚ Piano

**EGITARAUA** ^ PROGRAMA

I

## SERGEI RACHMANINOFF (1873-1943)

**Concierto nº2 en do menor para piano y orquesta, Op.18** [33']

I. Moderato
II. Adagio sostenuto
III. Allegro scherzando

II

## RICHARD STRAUSS (1864-1949)

**Macbeth, TrV 163, Op.23** [18']

**Don Juan, TrV 156, Op.20** [17']
Argitaletxea / Edita: C. F. Peters Corp.

Denboraldi-amaierako aparteko kontzertu honekin, Abonu Denboraldiko seigarren kontzertuaren programaziori ekingo diogu berriro, martxoan atzeratu egin behar izan baikenuen. Hortaz, **Sergei Rakhmaninov**en sorkuntza paradigmatikoa entzuteko aukera berreskuratuko dugu: ***Pianorako 2. Kontzertua,*** pianorako errepertorioko obrarik ezagunenetako (eta zailenetako) bat. **Federico Colli** pianista italiar bikainak interpretatuko du. Salzburgoko eta Leedseko lehiaketen irabazlea da, eta bere belaunaldiko pianojole irudimentsuenetako bat. Eta, harekin batera, **Giancarlo Guerrero** zuzendari costarricarra lehen aldiz arituko da Euskadiko Orkestrarekin; Nashvilleko Sinfonikoko zuzendari titularra da, eta sei aldiz irabazi du Grammy saria. Konpositore errusiarraren musikaz gain, Rakhmaninoven garai bereko konpositore alemaniar ospetsu baten, Richard Straussen, gaztetako bi poema sinfonikori ere helduko die Guerrerok.

**Rakhmaninov**en ***Pianorako 2. Kontzertua***k gainditze-istorio aparta du atzean, *1. Sinfonia*ren 1897ko estreinaldi katastrofikoarekin lotuta. Aurkezpen hartako zuzendaria, Alexander Glazunov, oso mozkor zegoen, antza denez, eta guztiz desitxuratu zuen obra. Baina kritikariek, zuzendariaren aurka egin ordez, anker jokatu zuten sinfoniarekin. Cesar Cuik, Los Cinco taldeko alma materrak, honela deskribatu zuen: «Ikasle batek Egiptoko zazpi izurriteak musikaren bidez interpretatzeko egindako saiakera». Rakhmaninov traumatizatuta geratu zen eta depresio sakon batean murgildu zen. Hiru urte pasatu zituen nota bakar bat ere idatzi gabe. Nikolai Dahl psikiatrarekin (eta melomanoarekin) terapia egin ondoren baino ez zuen lortu blokeoa gainditzea. Hark hipnosia egin zion, konposatzeko beldurra galdu zezan.



Hipnosi bidezko tratamenduak gehiegi edateari uzten lagundu zion. Hala, zentratu egin zen, eta musika idazteko trebetasuna zein nahia berreskuratu zituen. Rakhmaninovek honakoa esan zuen tratamenduari buruz: «Egunero formula hipnotiko bera entzuten nuen, Dahlen estudioko besaulki batean erdi lotan etzanda nengoen bitartean: ‘Zure kontzertua idazten hasiko zara… Erraztasun handiz lan egingo duzu… Kontzertua kalitate bikainekoa izango da’. Beti gauza bera zen, etenik gabe. Eta, sinesgaitza badirudi ere, sendabide hark benetan lagundu zidan». Sendatu ondoren, azkar lan egin zuen haren pianorako kontzertu berrian, eta Moskun estreinatu zuen 1900eko abenduan, partzialki (bigarren eta hirugarren mugimenduak bakarrik). 1901eko urrian estreinatu zuen osorik, Moskuko Orkestra Filarmonikoarekin, Alexander Silotik zuzenduta eta Rakhmaninov bera pianoan zela. Testigantzen arabera, izugarrizko arrakasta izan zuen; publikoa berotu egin zen, eta minutu luzez egin zuen txalo. Eta arrakasta hura gaur egunera arte luzatu da, errepertorioko pianorako kontzertuen artetik gehien programatzen denetako bat izaten jarraitzen baitu.

Haren arrakastarako formula sinplea bezain burutsua da: hanka bat folklore errusiarrean duten melodia gogoangarriak; orkestrazio atseginzalea; piano liluragarria, teklatuaren gaineko benetako malabarismo-uneekin; eta aberastasun harmoniko, kontrapuntistiko eta formal handia, baina diskurtso rapsodikoaren jarioa oztopatu gabe, beti kitzikagarria, adierazkorra, askotarikoa eta zuzena. Rakhmaninovek, azken batean, oso argi zituen ideiak, eta honakoa baieztatu zuen: «Melodia musika da, eta musika ororen oinarria. Ez ditut gustuko melodia eta harmonia alde batera utzi eta zarata eta disonantzien orgia baten alde egiten

duten konpositoreak». Kontzertu honen bigarren mugimendua, *Adagio sostenuto*, errepertorio klasikoko une sentimental nagusienetako bat bilakatu da, sordinadun sokaz lagundutako melodia delikatuekin. Eta entzunaretoetatik harago iritsi da, hainbat filmetan erabili baitute, hala nola Noel Cowarden *Brief Encounter* filmean. Gainera, Rakhmaninovek bere psikiatrari eskaini zion partitura hori.

***Macbeth,*** 1886 eta 1888 artean idatzia, **Richard Strauss**en lehenengo poema sinfonikoetako bat izan zen, *Don Juan, Heriotza eta Eraldatzea* eta *Till Eulenspiegel* poemak baino lehenagokoa. Konposizio-prozesua bihurgunetsua izan zen. Izan ere, musika narratiboaren gainean ikasten ari zen oraindik Strauss, eta Shakespeareren tragediako gatazka dramatikoa forma musikal tradizional baten gainean proiektatzen saiatu zen. Hala, «gero eta gatazka handiagoa sortu zitzaion helarazi nahi zuen musika-eduki poetikoaren eta konpositore klasikoengandik jaso dugun hiru zatitako sonataren formaren artean». Aurrerago, Straussek bere egin zituen guztiz Liszten ideiak –logika poetikoak eta dramatikoak baino ez dutela gidatu behar musika–. Dena den, *Macbeth* poema sinfoniko baten eta sinfonia baten lehenengo mugimenduaren arteko hibrido bat da, eta poema sinfonikoaren generoa maisutasunez menderatu zuen egile baten manifestu pertsonal, fresko, zaratatsu eta gazte gisa ulertzen da.

***Don Juan*** obrarekin, Straussek izugarrizko pausoa eman zuen. Konpositoreak adierazi zuenez, Nikolaus Lenauren izen bereko bertso dramatiko amaitu gabean oinarrituta dago obra, baina *Don Juan* lanari ekiteko behin betiko estimulua 1887an iritsi zitzaion, Munichen Mozarten *Don Giovanni* obraren hainbat emankizun zuzendu zituenean. Handik gutxira, ziur asko 1988ko udaberrian, haren poema sinfonikoan lan egiten hasi zen Strauss.



Straussek noizbait aitortu zuen *Tristan eta Isolda* zela gehien gustatzen zitzaizkion bi operetako bat; bestea, *Così fan tutte*, Mozartena. Kontraste bitxia da, maitasunari ikuspegi antagonikoetatik begiratzen baitiote bi lan horiek: Wagnerren kasuan, sentimendu transzendentala da; Da Ponte eta Mozarten obran, berriz, pasioaren nahierara astindutako sentimendua da maitasuna. Ondorioz, Straussen *Don Juan* piezak bi munduetako zerbait duela dirudi.

Lekuak, pertsonaiak eta ekintzak bizitasunez deskribatzeko modua topatu zuen Straussek *Don Juan* obran. Hala, ez da behar hitzezko azalpenik edo programa literariorik. Eta ez da gutxi poema sinfoniko horren barruan gertatzen dena: pertsonaiaren aurkezpen oso azkarraren ondoren (obra klimax betean hasten baita), maite-jolas bat, bi maitasun-harreman eta hil arteko borroka bat gertatzen dira bata bestearen jarraian; hori dena 17 minututan gertatzen da. Protagonista libertinoaren pasioek gidatzen dute musika, frenesi betean, maitasunak (agian, benetakoa) konkistatzailearen bizitzan elementu berri bat sartzen duen arte. Oboearen melodia zabal bat erabili zuen maitasun hori adierazteko. Azken finean, 1888an Straussek ezagutu berri zuen Pauline de Ahna sopranoa, aurrerago haren emaztea izango zena. Dena den, benetako maitasunaren parentesi horren ondoren, Don Juan haren ibileretara itzultzen da, eta azkenean zoritxarra iristen zaio. Partituraren azkeneko konpasetan heriotzara errenditzen da, «energia agortuta, eta bihotza hotz eta ilun duela» (Lenau).

MIKEL CHAMIZO

Con este concierto extraordinario de fin de Temporada retomamos la programación del sexto concierto de abono, que tuvo que ser aplazado en marzo. Recuperamos, por tanto, la oportunidad de escuchar la creación paradigmática de **Sergei Rachmaninoff:** el ***Concierto para piano nº2***, una de las obras más populares (y difíciles) del repertorio pianístico. La interpretará el soberbio pianista italiano **Federico Colli,** ganador de los concursos de Salzburgo y Leeds, y aclamado como uno de los pianistas más imaginativos de su generación; y junto a él, debuta con Euskadiko Orkestra el director costarricense **Giancarlo Guerrero**, titular de la Sinfónica de Nashville y ganador del premio Grammy en seis ocasiones. Además de la música del compositor ruso, Guerrero abordará dos poemas sinfónicos juveniles del ilustre contemporáneo alemán de Rachmaninoff: Richard Strauss.

El ***Concierto para piano nº2*** de **Rachmaninoff** esconde tras de sí una extraordinaria historia de superación, que se remonta al catastrófico estreno de su *Sinfonía nº1* en 1897. El director en aquella presentación, Alexander Glazunov, al parecer estaba tan ebrio que desfiguró por completo la obra. Pero los críticos, en vez de hacerlo con el director, se ensañaron con la sinfonía e incluso César Cui, alma mater del grupo de Los Cinco, la calificó como «el intento de un estudiante de representar en música las siete plagas de Egipto». Rachmaninoff quedó tan traumatizado por todo esto que cayó en una profunda depresión y pasó tres años sin escribir una sola nota. Solo logró superar su bloqueo tras someterse a terapia con Nikolai Dahl, un psiquiatra —y melómano— que llegó a someterlo a hipnosis para que perdiera el temor a componer.

El tratamiento con hipnosis le ayudó a dejar de beber en exceso, lo que le permitió centrarse y recuperar tanto la habilidad de escribir música como el deseo de hacerlo. Sobre el tratamiento, Rachmaninoff anotó lo siguiente: «Escuchaba la misma fórmula hipnótica repetida día tras día mientras yacía medio dormido en un sillón del estudio de Dahl: 'Comenzarás a escribir tu concierto… Trabajarás con gran facilidad… El concierto será de excelente calidad'. Siempre era lo mismo, sin interrupción. Y aunque parezca increíble, esta cura realmente me ayudó». Una vez recuperado, trabajó rápidamente en su nuevo concierto para piano y se estrenó parcialmente en Moscú en diciembre de 1900 (solo el segundo y tercer movimientos). Su estreno completo, en octubre de 1901 con la Filarmónica de Moscú dirigida por Alexander Siloti y el propio Rachmaninoff al piano, fue, según los testimonios, un éxito apoteósico, con un público enfervorecido que aplaudió durante largos minutos. Y aquel éxito que se ha prolongado consistentemente hasta la actualidad, ya que sigue siendo uno de los conciertos para piano más programados del repertorio.



La fórmula de su éxito es tan sencilla como inteligente: melodías memorables con un pie en el folclore ruso, una orquestación voluptuosa, un pianismo deslumbrante con momentos de verdadero malabarismo sobre el teclado, y una abundante riqueza armónica, contrapuntística y formal pero que no entorpece el fluir de un discurso rapsódico que es siempre excitante, expresivo, variado y directo. Rachmaninoff, al fin y al cabo, tenía las ideas muy claras y llegó a afirmar que «la melodía es música y la base de toda música. No aprecio a los compositores que abandonan la melodía y la armonía por una orgía de ruidos y disonancias». El segundo movimiento de este concierto, *Adagio sostenuto*, con sus delicadas melodías arropadas por las cuerdas con sordinas, se ha convertido en una de las páginas sentimentales por excelencia del repertorio clásico y ha trascendido más allá de los auditorios para ser empleado en películas como *Breve encuentro*, de Noel Coward. Rachmaninoff, por cierto, dedicó esta partitura a su psiquiatra.

***Macbeth,*** escrito entre 1886 y 1888, fue uno de los primeros poemas sinfónicos

de **Richard Strauss,** inmediatamente anterior a *Don Juan, Muerte y Transfiguración* y *Till Eulenspiegel.* Su proceso de composición fue tortuoso, pues Strauss, que aún estaba en un proceso de aprendizaje en torno a la música narrativa, trató de proyectar el conflicto dramático de la tragedia de Shakespeare sobre una forma musical tradicional, generando «un conflicto creciente entre el contenido musical poético que quería transmitir y la forma de sonata en tres partes que hemos heredado de los compositores clásicos». Más adelante, Strauss adoptaría plenamente las ideas de Liszt —que la música debe guiarse exclusivamente por la lógica poética y dramática—, pero este híbrido entre poema sinfónico y primer movimiento de sinfonía que es *Macbeth*, no deja de percibirse como el manifiesto personal, fresco, ruidoso y juvenil, de un autor que llegaría a dominar con maestría el género del poema sinfónico.

Con ***Don Juan***, Strauss dio un paso enorme en este sentido. El compositor afirmó haber basado la obra en el inacabado verso dramático homónimo de Nikolaus Lenau, pero el estímulo definitivo para abordar *Don Juan* le llegaría en 1887, cuando dirigió en Múnich varias representaciones de *Don Giovanni* de Mozart. Poco después, probablemente en la primavera de 1888, Strauss comenzaba a trabajar en su poema sinfónico.

Strauss reconoció en cierta ocasión que *Tristán e Isolda* era una de sus dos óperas favoritas; la otra, *Così fan tutte* de Mozart. Extraño contraste, tratándose de dos títulos que observan el amor desde puntos de vista antagónicos: el del sentimiento trascendental, absoluto de Wagner, frente al amor zarandeado por los caprichos de la pasión de la obra de Da Ponte y Mozart. En consecuencia, el *Don Juan* de Strauss parece poseer algo de ambos mundos.



Con *Don Juan*, Strauss descubrió la clave para describir lugares, personajes y acciones de forma tan vívida que las explicaciones verbales o programas literarios dejan de ser necesarios. Y no es poco lo que sucede en el interior de este poema sinfónico: tras la fulgurante presentación del personaje, ya que la obra comienza en pleno clímax, se encadenan un flirteo, dos romances y un duelo a muerte, todo ello en tan solo 17 minutos. Las pasiones del disoluto protagonista guían la música con un frenetismo caprichoso, hasta que un amor, quizá verdadero, encarnado por una amplia melodía del oboe, parece introducir un nuevo elemento en la vida del conquistador. Al fin y al cabo, en 1888 Strauss acababa de conocer a Pauline de Ahna, la soprano con la que terminaría uniéndose de por vida. Sin embargo, tras este paréntesis de amor sincero, Don Juan regresa a sus correrías y finalmente cae en desgracia. Con «la energía consumida y el corazón frío y oscuro» (Lenau) se entrega a la muerte en los compases finales de la partitura.

MIKEL CHAMIZO




**Eta urritik aurrera…** Y a partir de octubre…

TEMPORADA **24 / 25 DENBORALDIA**

**Zain dituzu beste hamar kontzertu zirraragarri.**
Te esperan otros diez apasionantes conciertos.

ALDAVE | ARZAMENDI | BRAHMS | BERLIOZ | BRUCH | BRUCKNER | GLANERT | MAHLER | PROKOFIEV | SAARIAHO | SAINT-SAËNS | SCHOENBERG | SCHUBERT | SCHUMANN | SIBELIUS | SCRIABIN | STRAUSS | SZYMANOWSKI

24

# EUSKADIKO ORKESTRA

25



**ROBERT TREVIÑO**

Zuzendari titularra — Director titular

ALDAVE | ARZAMENDI | BRAHMS | BERLIOZ | BRUCH | BRUCKNER | GLANERT | MAHLER | PROKOFIEV | SAARIAHO | SAINT-SAËNS | SCHOENBERG | SCHUBERT | SCHUMANN | SIBELIUS | SCRIABIN | STRAUSS | SZYMANOWSKI